

GAZTEPARTE

NOLA SUSTATU GAZTEEN EMANTZIPAZIOA TOKIKO ERAKUNDEETATIK?

SARRERA

Txosten honetan 2024ko martxoa eta apirila bitarte ausaz hautatutako Gipuzkoako 17 gazteek osatutako lan talde batek sortutako gomendioak biltzen dira (*ausaz hautatuak izan dira perfil kulaitatibo zehatzen arabera, izena eman zuten 240 gazteen artean*). Gomendioen aurretik, horiek kokatzen marko laburra ere azaltzen da.

Egindako lanketak eta sortutako gomendioak Gipuzkoako tokiko erakunde denetara iristeko anbizioa badute ere, honako tokiko erakundeak dira gomendioak jaso eta aztertzeko zein erantzuna emateko konpromisoa eman dutenak:

- Donostiako Udala (gazteria saila)
- Tolosako Udala (gazteria saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia (gazteria zuzendaritza eta Gobernu Ona eta berrikuntza politiko-sozialerako zuzendaritza)

Sarrera atal honen ondoren, gomendioak sortzeko landu eta adostu den marko laburra azaltzen da, eta segidan, sortutako gomendioak ordenatzeko eta antolatzeko egituraren arabera 11 gomendio azaltzen dira.

GAZTEPARTE

NOLA SUSTATU GAZTEEN EMANTZIPAZIOA TOKIKO ERAKUNDEETATIK?

NORTZUK GARA?

- 18-29 urteko 17 gazte: Donostia, Tolosa eta Gipuzkoako udalerrietakoak.
- Gazteen kolektiboak pertsona ezberdinak osatzen dugu, adin tarte bakoitzean behar/egoera ezberdinak. 20 URTEKO ETA 28 URTEKO GAZTEEN BEHARRAK ETA EGOERAK EZBERDINAK DIRA...Gazteen kolektiboa oso anitza da eta oso behar eta egoera ezberdinetan gauden pertsonak osatzen dugu.
- Politikak egiteko kontuan hartu beharrekoa: Gazte guztiak ez gara berdinak eta ez gaude bizitza momentu berdinean.

GAZTEPARTE

NOLA SUSTATU GAZTEEN EMANTZIPAZIOA TOKIKO ERAKUNDEETATIK?

GURE BALORAZIOAK (DIAGNOSIA)

EGUNGO SISTEMA ZAILA/KORAPILATUA DA:

- Bakoitzak berea bilatu behar du (lan, etxebizitza...)
- Ibilbide konektaturik ez dago: Ikasketa eta lan munduaren arteko lotura falta nabarmena sumatzen da, batez ere gradu ikasketen kasuan.
- Etxebizitzara sarbidea errazteko egungo sistema publikoaren dirulaguntza ezaugarriak eta eskaintzak ulertzeko zailak dira, eta prozedura astunak dituzte.
- Merkatu libreak oso aukera zailak eskaintzen ditu gazteek etxebizitza eskuratzeko, eta horren kultura ahuldu da, familiaren etxean bizitza luzatzeraino.

ERRONKA ETA ZAILTASUN BATZUK OSO KONPARTITUA DITUGU: Lana egonkortzea, etxebizitza lortzea. Erakunde publikoak hori erraztu eta horretan seguritatea eta bermea eman behar dute.

GAZTEPARTE

NOLA SUSTATU GAZTEEN EMANTZIPAZIOA TOKIKO ERAKUNDEETATIK?

ZER SORTU DUGU?

Tokiko erakundeei zuzendutako 11 gomendio
-LAN MUDURATZE BIDEA LAGUNTZEKO GOMENDIOAK=
2 GOMENDIO

-ETXEBIZITZARA SARBIDEA ERRAZTEKO
GOMENDIOAK=
9 GOMENDIO

HORIEK HONELA BANATZEN DIRA
*EGUNGO SISTEMAN ERAGITEKO=
5 GOMENDIO

*BESTELAKO SISTEMAN ETA KULTURAN ERAGIN=
4 GOMENDIO

**Proiektu
arduradunak**



**Gadaitza
metodologikoa**



**Erakunde
Partehartzaileak**



Laguntzailea



GAZTEPARTE:

GOMENDIOEN TXOSTENA

**Proiektu
arduradunak**



**Gadaitza
metodologikoa**



**Erakunde
Partehartzaileak**



Laguntzailea



LAN MUDURATZE BIDEA ERRAZTEKO GOMENDIOAK

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

6. GOMENDIOAREN IZENA: LAN INFORMAZIORAKO, ORIENTAZIORAKO ETA BIDELAGUNTZA BULEGOA

HITZ GAKOAK: GAZTEAK, ORIENTAZIOA, INFORMAZIOA, UDALETXEA

<p>Justifikazioa</p>	<p>Gazteok eskararen edota FP/Unibertsitatearen ondoren, galduta gaude lan mundura nola jauzi egin ez dakigulako eta informazioa, aholkularitza eta baita bide laguntza ere behar dugu (aurrez aurre eta gertutasunarekin eta konfiantzarekin). Idealen hezkuntzan txertatzea bada ere, hori gertatzen ez den bitartean, Udalen eskutik bulego ordu batzuk jartzea eskatzen da, zerbitzu hori eskaintzeko, astean “hainbat” orduz.</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Lan orientaziorako bulego bat sortzea ondorengo helburuekin/aukerekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aditu baten hitzaldiak, aholkularitzak (urtean hainbat egunetan eta tailer moduan) - Informazioa eguneratuta eten gabe: lan aukerak ikusteko portalak, lekuak, e.a. - Baliabideak prestatzeko ereduak, errekurtsoak: kurrikulua, elkarrizketa bat prestatu, informazioa eskatu, e.a. - Behin lan mundura sartzeko aukera izan denean, lehen urteetan, lan sistemari buruzko informazioa eta aholkularitza: nomina nola ulertu, zergak, autonomen kasuan fakturak, e.a. <p>Orokorrean, lan sistemara, eta sistema publikora gerturatzeko eta ulertzeko bidelaguntza eta aholkularitza.</p>
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Bulegoa, langileak eta web orri bat. Herri tamainen arabera, agian ordu gutxi batzuk dira astean, ez du zergatik egunero 8 orduz egin behar zerbitzua. Udalerrri txikietan, agian astean 2 ordu nahikoak dira, ertainetan astean 8 orduz, eta handiagoetan luzeagoa beharko du izan. - Sare sozialetan informazio gehiago egotea
<p>Nori zuzendua</p>	<p>Gazteei, eta balio dezake ere migrazio proiektuarekin etortzen diren pertsonentzat ere, eta horrela, bi erronkei heltzen zaie aldi berean.</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udaletxeak: gazte teknikariak, enplegu teknikaria, gizarte zerbitzuak, migrazio teknikaria edo zinegotzia...lanbide etab.

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

10. GOMENDIOAREN IZENA: TOKIKO LAN ESKAINTZEN ETA ESKARIEN PLATAFORMAK SORTU

HITZ GAKOAK: TOKIKO LAN ESKAINTZA

<p>Justifikazioa</p>	<p>Badira hainbat plataforma lan eskaintzari begira, baina hotzak eta batez ere norabide bakarrean funtzionatzen dute. Behar da gertutasuna eta ezagutza eta interakzioa bultzatuko duen tresnaren bat. Lotu daiteke herri eta eskualdeetako enpresei ere zerbitzu hori saretzearekin. Udalek egin dezakete zubi lana, enpresek behar dituzten profilak, eta pertsonak duten lan eskaria harremanuz eta harremana horiek sustatuz. Erronka: Bestelako plataformen erreferentzialtasun falta eta gertutasuna lortzea herri/eskualdetan</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Eskualdeka edo herrika, plataforma edota udaletxeetako webgunean atal bat sortzea inguruan dauden lan eskaintzak argitaratzeko, deskribapenarekin eta bertara jotzeko erraztasunekin. Lan eskariak ere egon daitezke, eta lagundu horiek harremanantzen. Udalen ardura izan daiteke sustatzea enpresek eskaintzak egitea eta eguneratzea, eta eskaintza horiei begira dauden profilak bultzatzea enpresa horietan harremanak sortzera.</p> <p>Udalek lan berezia eta garrantzitsua egin dezakete, eta herriko enpresei eskaini zerbitzua eta lan postuak behar dituztenean portal horretan ere ageri daitezela, eta sustatu dadila tokiko interakzio hori. Herriko lanak / Zerbitzu / Enpresei eskatu lan beharra daukatenean adierazteko.</p> <p>Udalek hobariak eman ditzakete, tokiko enpresek tokiko gazteak kontratatzen badituzte</p>
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<p>Plataforma edota atal bat udalerrietako web guneetan (adituek esango dute euskarri egokia eta kokapen egokia zein den)</p>
<p>Nori zuzendua</p>	<p>-Udalei, eta agian kasu batzuetan eskualde mailan egin daiteke (herrien arabera)</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<p>Udala, tokiko enpresak eta tokiko jarduera ekonomikoak. Udalak saretzea eta zubi lan zerbitzua eskaini dezake, eta sustatu tokiko enpresek tokiko herritarrak kontratu ditzan. Enpresak zerbitzu erakargarria eta eraginkorra topatu behar dute, eta onuraren bat jaso beharko dute. Hori landu behar da.</p> <p>Aldundiak lagundu dezake kultura hori sortzen, eta hobari antzekoak jarri enpresentzat tokiko udalerriz guztietan.</p>

**Proiektu
arduradunak**



**Gadaritza
metodologikoa**



aztiker
SOSIOLOGIA IRABERUNA

**Erakunde
Partehartzaileak**



Arantzasulab
GIZARTE BERRIKUNTZA
SOCIAL INNOVATION



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



TOLOSA

Laguntzailea



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

ETXEBIZITZARA SARBIDEA ERRAZTEKO GOMENDIOAK

**Proiektu
arduradunak**



**Gadaitza
metodologikoa**



**Erakunde
Partehartzaileak**



Laguntzailea



EGUNGO SISTEMAN ERAGITEKO GOMENDIOAK

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

2. GOMENDIOAREN IZENA: ETXEBIZITZA BAREMOAK BIZI ESTILO AUKERA EZBERDINETARA EGOKITU/DOITU

**HITZ GAKOAK:
BAREMOAK
EGOKITU
EGUNGO
ERREALITERA**

<p>Justifikazioa</p>	<p>Gazteei zaila egiten zaigu etxebizitza tasatuetan sartzea, eta askotan bikotekide edo beste pertsona batzuekin hartzera bultzatzen gaituzte, bakarrik ordaintzea ezinezkoa baita. Gauza bera alokairu baldintzen ezaugarriekin, ia ezinezkoa da herri askotan 800€ alokairua lortzea. Horregatik, ikusten dugu baremo horiek egokitzeko beharra, pertsona bakarren egoerara egokitzea eta doitzea, egun ez baita erreala pertsona guztiok bikote bizitzan ari garenik. Baita ere aukera eman behar zaio egun ohikoa den errealitateari (alokairu prezioak) eta doitu baremoak errealitate anitz horietara..</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Babes ofizialeko etxebizitza zein tasatuetan... gazteei egokitutako eta benetan gazteei lagundu eta eraginkorrak izateko baremoak prezioei jartzea (tasatutako etxebizitzeari, protekziokoei, dirulaguntzeari...)</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Dirulaguntzen kasuan alokairua prezioak egungo merkatu preziora moldatzea 2. Alokairuak soldataren arabera moldatzea. Esaterako, soldataren ehuneko konkretu batera mugatzea alokairua
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak, Aldundiak eta Jaurlaritzak Baremoetan egoera anitzak kontuan izatea, eta horren arabera egokitzea. Proposamen bat prestatu, eta horren arabera barematu aurrerantzean. - Erakundeen artean maila anitzeko lankidetzaren bidez egokitzea egungo markoa, errealitate anitzeari aukera anitzak emanez.
<p>Nori zuzendua</p>	<p>-Gazteei Zuzendua -EAEko erakundeen arteko lankidetzaz</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lankidetzan elkar eragitea eta adostasun batera iristea proposatzen da, bai Udal eskumena eta proiektua den kasuetan, baita Eusko Jaurlaritzaren eskumena den kasuetan ere, eta baita Aldundiko zerbitzuen kasuetan..

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

4. GOMENDIOAREN IZENA: UDALAK GUNE TENTSIONATUA IZAN DADIN ESKAERA EGIN

**HITZ GAKOAK:
GUNE
TENTSIONATUTA
, PREZIOETAN
ERAGIN**

<p>Justifikazioa</p>	<p>Alokairuko etxebizitzaren eskaintzak ez dio erantzuten eskariari eta gazteek zailtasunak dituzte alokairuko etxebizitzetan sartzeko, hauek dituzten prezio altuengatik eta soldata eskasengatik. Horren ondorioz, gazteak nazioarera begira jartzen dira egun, bai lan baldintzak hobetzeko helburuarekin, eta baita etxebizitza aukerak lortzeko erraztasunengatik. Beharrezkoa da gazteen bizi aukerak bermatzea sisteman, eta horri begira, etxebizitza aukerak izatea oso garrantzitsua da.</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Udalarentzat tresna izango da alokairuen prezioan eragiteko. Eskaintza eta eskaria erregulatzea bultzatzeko. Informazioa eta pedagogía handia egin beharko da gaiaren inguruan. Egundako etxebizitza “negozio” aukera gisan gehiegi ulertzen da, eta jauzi bat egin behar da eta etxebizitza beharrezko azpiegitura eta eskubide gisan kokatu eta bermatu behar da.</p>
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<p>-Udal teknikaria: prozedura tekniko-administratiboari aurre egiteko. -Oniritzi eta adostasun politikoa: beharrezkoa da eragitea merkatuan eta aukera bat da horri begira. Talde politikoek erronka honi aurre egiteko garaian adostasun batzuk lortzea oso garrantzitsua da.</p>
<p>Nori zuzendua</p>	<p>-Udalei, eta Udalek egin beharko dute lanketa bai komunikatiboa eta baita pedagogikoa ere.</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udala - Foru Aldundia/Jaurlaritza - Estatua <p>Erakunde ezberdinak batera</p>



5. GOMENDIOAREN IZENA: ALOKAIUEN ERREGULATZEA LANTZEA HITZ GAKOAK: ALOKAIUA, PREZIOA, GAZTEA	
Justifikazioa	<p>Gaur egungo alokairuen egoera ikusita, guztiok arazoak ditugu, eta ordaintzeko gazteentzat zailagoa da. Merkatu librearen bidez, etxebizitza aukerak eta eskubideak luxuzko azpiegiturak bihurtzen ari dira, eta ezinbestekoak dira sistema honetan bizi baldintza duinak bermatzeko. Hori dela eta, merkatu librearen bidez egoera oso zailera iritsi garenez, erakunde publikoek eskua hartu behar dute, tresnak sortu behar dituzte eta eragin merkatu libre mugatzeko.</p>
Deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> - Prezioen maximoak jarri legez - Emantzipa bezalako laguntzak sustatu: Adina jaitsi/igo 18-30; irabazten denaren eta pisuarengatik ordaintzen denaren arabera erregulatu - Soldaten %-a izan dadila irizpidea alokairu prezioak erregulatzeko - Etxebizitzarekiko sortu den “espekulazio kultura eten, eta beharrezkoa den neurrian, beste paradigma batera pasa. Honek pedagogía eta informazioa zein komunikazio handia beharko du.
Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)	<p>-Lankidetzak erakunde ezberdinen artean (udalak-aldundia-jauralaritza), eta adostasunez dagokion erakundeak erregulatu ditzala eskatu, eta horren ezaugarriak adostu. Eskumena ez duten erakundeek egoeraren gaineko gertutasuna dute, eta presioa eta aldarrikapena egin behar dute horri begira (udalek): mozioen bidez, lankidetzak dinamikaren bidez, e.a. Bide horretatik ere pedagogia egingo dute, egungo kulturaren eragiteko eta etxebizitza negozio eskemetatik ateratzeko.</p> <p>-Laguntzetarako dirua izendatu beharko da aurrekontuetan (udalak), eta haien gainean informatzeko proiektuak (bulegoak adib.), informazioa sareetan ulergarriagoa eta errazago egon dadila bermatu.</p> <p>EAEko erakundeek Etxebizitzak alokatzeko laguntzetan urtero partida bat gordetzea dagokien erakundeei eta informazio lanketa bat egitea horien inguruan. (Udalak, Foru Aldundia...)</p>
Nori zuzendua	<p>Oro har EAEko biztanleei, zehazki gazteei eta ondorengo belaunaldiei, eta orokorrean biztanleriari ere.</p>
Inplikaturako eragileak	<ul style="list-style-type: none"> - Udaletxeek eta Aldundiek presioak, elkarrizketak eta lankidetzak sortu behar dituzte dagokion erakundeak erregulaziorako neurriak har ditzan argitzeko. - Eusko jauralaritzarekin eta estatuko dagokion entitatearekin edo administrazioarekin sortu behar da elkarrizketa, negoziazioa eta lankidetzak erregulatzeko hori adostasunez gerta dadin.

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

9. GOMENDIOAREN IZENA: ETXEBIZITZA TURISTIKOAK ERREGULATU

HITZ GAKOAK: ETXEBIZITZA-TURISTIKOAK, MUGATU

<p>Justifikazioa</p>	<p>Turismoak gora egitea aurreikusten denez, etxebizitza turistikoak ugaritzea gerta daiteke, etxebizitza negozioa bilakatzearen kulturen eragin behar da. Horrek etxebizitza arazoa areagotuko du, prezioak asko igoko direlako eta egoera oso larrietan eta kontrola ezinean egon gaitezke. Eragin behar da, herri denetan etxebizitza eta herri bizitza bermatzeko, turismo aukeren aurretik.</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Etxebizitza turistikoen kopurua asko mugatu eta banaketa asko orekatu, etxebizitza eta proiektu aukeratan asko eragiteko, eta lehenesteko herri bizitza turismoaren aurretik..</p> <p>Herri denetan azterketak egin, eta ikusi nola ari den eragiten turismo etxebizitzak.</p> <p>Etxebizitza kulturen eragin, eta negozio gisan erabiltzeari utzi, eta beste erabilera paradigmara pasatzeko sentsibilizazioa eta pedagogia egin.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Turismoaren eragina gutxitzeko: Pisu turistikoak erregulatu/Pisu turistikoak gutxitu (Auzo eremu espezifikoen lehentasunez) - Turismoa ez dagoen udalerrietan ere lan prebentiboa egin, eta aurre egin egoerei, gerta ez daitezkeen, eta kultura hori sortu ez dadin.
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Erabaki politikoa eta horren mesedetan hartu neurriak (lege neurriak, e.a.). - Udaleko teknikariak eta zinegotziak
<p>Nori zuzendua</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udalei eta etxebizitza jabe pribatuei - Orokorrean gizarteari, eta etxebizitzaren negozioaren kultura mugatu eta murrizteari, eta beste etxebizitza kultura sustatzeari.
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<p>Udalak, batera eta sintonizatuta, kultura eredu aldatzeko helburuarekin; Foru Aldundiak sustatu dezake udalak gai horri begira jartzea, eta neurri ereduak hedatzea eta laguntzea horretan. (Aldundiak-udalak)</p>

**Proiektu
arduradunak**



**Gadaritza
metodologikoa**



**Erakunde
Partehartzaileak**



Laguntzailea



BESTELAKO SISTEMAN ETA KULTURAN ERAGITEKO GOMENDIOAK

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

1. GOMENDIOAREN IZENA: ETXE HUTSEN MERKATURATZEKO NEURRIAK HARTU

HITZ GAKOAK:
Babesa eman, etxe hutsen jabeak, alokairu soziala eta negoziaketa

<p>Justifikazioa</p>	<p>Egun udalerrri gehienetan etxe huts mordoa daude eta horiek etxebizitza aukera bihurtzeko udaletatik neurriak hartu behar dira. Horretan erronka da etxe hutsen jabeekin lanketak egitea eta neurriak sortzea merkaturatzeko aukera eskaintzen dutenei. Etxe hutsak mugitzeko beharra dago, eta berez gertatzen ez den kasuetan ikertu behar da nola mugitu horiek eta neurriak hartu.</p> <p>Etxebizitza aukerak sortu udaletan, etxebizitza hutsak baliatuz eta horiek mugitzeko neurriak hartuz</p>
<p>Deskribapena</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Udalak hainbat etxe hutsak erosi eta gazteei alokatzea, alokairu sozialaren bidez. Jabegoa eskuratu, eta ekipamendu gisan erabili alokairu sozialerako, eta horietan kuota bat izan dadila gazteentzat. (etxebizitza kopuru zehatza, eta hasteko ez handia) 2. Hutsik eta zaharkituta dauden etxe horiek alokatu ahal izateko, udalek alokairu bat adostu jabeekin. Hitzarmena egin etxe huts deterioratuen jabeekin: hainbat urteetan alokairua prezio baxuan ematearen truke, Udalak beharrezko berrikuntzak egingo dizkio etxeari (sukaldea, komuna, lehioak...), ondoren, gazteei alokairuan luzatzeko. Udalaren eta familien artean "5 edo 10" urteko kontratu edo hitzarmen bat ezarri (horren arabera berrikuntza konpromisoak doituko dira) 3. Alokairuaren prezioa pertsonalizatu: soldataren ehunekoaren arabera (<i>Usurbilgo eredu: soldataren %15^a</i>)
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Dirua: erosteko hainbat etxe huts, konpondu eta alokairuan eskaintzako; Diru gutxiago: alokairu hitzarmena lortu eta berrikuntzak adosteko - Ikerketa bideratuko duen teknikoak: zeintzuk dira mugitu daitezkeen etxebizitza aukera? Etxe jabeekin harremana egin eta interakzioa bilatu; negoziazioak ireki eta landu etxe jabeekin. (kopuru txikian bada ere, beti zerbait da eta eredu da!) - Proiektuaren burua harremanetarako (erreferentziazko persona udalean). - Koordinazioa gazte teknikariarekin.
<p>Nori zuzendua</p>	<p>Gazteei: 18-30 urte</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udala - Etxe hutsen jabeak - Alokaturako dituzten gazteak: gazte interesatuen errolda egin, eta zozketaz esleitu.

3. GOMENDIOAREN IZENA: ETXEBIZITZA PROIEKTU PUBLIKO KOMUNITARIOAK udalerrri denetan

HITZ GAKOAK:
Gazteak, etxe komunitarioak, dotazionalak, bi erronka proiektu batean

<p>Justifikazioa</p>	<p>Egungo gizarte egoeran, etxebizitzari eta bizikidetzari lotuta bi perfil zaurgarrienak dira gazteak, eta baita adinez nagusiak diren pertsonak eta bakardade arriskuan daudenak. Bi erronka lotzea oso interesgarria da, baliabideak aprobetxatu egiten direlako, eta komunitatean zein kulturaren eragiten delako.. Alde batetik, gazteak emantzipatzeko, eta bestetik, adinekoak gizartean integratzeko (bakardadea, parte hartzea...). Usurbilgo Txirikorda proiektuak bi erronka lotzen ditu eta proiektu batean integratzen ditu. Bide egokia da aurrerantzean jorratzeko.</p>
<p>DESKRIBAPENA</p>	<p>Usurbilgo eredua (Txirikorda proiektua), hau da, komunitate ereduan eta gizartearen bi erronkei proiektu berean aurre egiteko helburuekin, beste herrietara zabaltzea: Adinekoak eta gazteak; espazio publikoak herritarren erabilerarako, eta espazio konpartituak eta komunitarioak.</p> <p>Proiektua Txirikordaren antzekoa ez bada ere generazio arteko irizpidea kontuan izatea.</p>
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<p>-Espazioa, lurra, edo zaharkitua egon daitekeen eraikinen bat zaharberritzeko</p> <p>-Inbertsioa, dirua</p> <p>*etxebizitzak sortu, etxebizitza komunitarioak</p>
<p>Nori zuzendua</p>	<p>Udaletxeen lidergoa behar du izan, eta Jaurlaritzak bultzatu eta diruz lagundu behar ditu honelako proiektuak.</p> <p>Proiektuaren onuradunak: gazteak eta bakarrrik bizi diren adineko herritarrak (edo bikotean bizita ere, harreman sare oso mugatua dutenak)</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko biztanleria (nagusienak eta gazteak) - Udaletxea, Jaurlaritza - Herriko elkartegintza (nagusen elkarteak, gazte ekimenak, e.a.)

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaitza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	---	--	--

7. GOMENDIOAREN IZENA: GAZTEAK POLITIKETAN LEHENTASUNA ETA ERDIGUNEAN

**HITZ GAKOAK:
POLITIKA
AKTIBOAK
ETXEBIZITZAN**

<p>Justifikazioa</p>	<p>Egungo hirietako paradigma (Donostian): Hotel eta lizentzia turistikoak, luxuzko inbertsioak erdigunean, baina BOE eta tasatuak periferian. Bigarren etxebizitza hutsak erdialdean. Gazteoi oso zaila edo ezinezkoa egiten zaigu hirian etxebizitza eskuratzea eta gure hiritik eta auzotik joan behar dugu. Erdialdean bizitzea ez da kapritxo ala luxu bat, gure auzoan bizitzeko aukera izan nahi dugu.</p> <p>Horren aurrean, gazteen beharrak eta etxebizitza beharrak talka egiten du sustatzen den turismo alojamenduekin, eta bermatu behar da oinarrizko etxebizitza eskubidea turismoaren aurretik. Behin etxebizitza eskubidea eta aukerak bermatuta daudenean, turismo aukerei bide eman ahalko zaie. Turismo alojamenduak periferiarantz aldatzea ere aukera interesgarria da.</p>
<p>Deskribapena</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lehenetsi auzoetan etxebizitza aukerak bermatzea turismo alojamenduen aurretik: erabaki politikoa da, eta udalerrri mailan neurriak har daitezke horri begira. Hirietan jada talka agerian dago, eta esku hartu behar da. - Gazteak eta talentoa bertan geratzea bultzatu. Herri eta hiri bizigarriak bermatu, beraz, irauli egoera: erdigunean eta auzoetan bermatu etxebizitza aukerak, eta turismo alojamendu eta proiektuak periferiarara bidali.
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Erabaki politikoak, eta hori egikaritzeko legeak eta mugak: etxebizitza aukerak bermatu eta horren ondoren eman bidea turismo aukerei.
<p>Nori zuzendua</p>	<p>Bertako gazteei ekarriko die onura, erdiguneko auzoetako eraikinetan, hotelak egin beharrean, bestelako etxebizitza proiektuak egin ahal izango dira.</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<p>Udaletxeak orokorrean, eta herri/hiri handienak batez ere (neurri prebentiboak lantzea oso garrantzitsua da; egun arazoa ez dagoen lekuan prebentzio neurriak hartzea).</p>

<p>Proiektu arduradunak</p> 	<p>Gadaritza metodologikoa</p> 	<p>Erakunde Partehartzaileak</p> 	<p>Laguntzailea</p> 
--	--	--	--

8. GOMENDIOAREN IZENA: HERRI TXIKIEN ZAINZAILE

**HITZ GAKOAK:
GAZTEAK, HERRI
TXIKIETAN,
AUKERAK**

<p>Justifikazioa</p>	<p>Herri txikietan bizitzeko aukera falta dago, eta etxebizitza proiektu aukerak ere falta dira. Baserri handiak eta “villak” ez dira gazteentzat aukera, sekulako dirutza eskatzen delako.</p> <p>Herri txikiak oso lotuta daude naturari eta ingurumenari, eta egun, lehen sektorea gain beheran doan honetan, formula berriak eta anitzak topatu behar dira ingurumena zaindu eta horrekin batera, klima eta natura zaintzeko. Erronkak lotu, eta etxebizitza aukera ezberdinak sustatzea eta erraztea, naturan eta ingurumenean onura ekartzearekin batera lotu behar da: adibidez, txabola edo etxebizitza aukerak sortu eta erraztu herri txikietan, eta bermatu lurraren aktibitate edo zereginen batekin (lur baten zaintza eta mantenua, baratza jarduera, animalia gutxi batzuen jarduera...)</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Lurzainen/natura zainen beharra: jardun produktibotik haratago bertako paisaia, ondare ez materiala kudeatu eta zaintzearen truke abantaila batzuk izango lituzkeen profil baten beharra. Abantaila: lurzoru bizigarrien malgutzea. Esaterako, bertako bordetan bizitzeko baimena eskuratzea. Edo etxebizitza proiektu berritzaileak pentsatu eta sortzea.</p> <p>Jarduera produktiboaz haratago ere eragiten saiatzea: animalia espezieetan, errekatetan etab. Eragitea Perfil horrek produktiboak ez diren jardueretan.</p>
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<p>Etxebizitzak edo bordak eraikitzeko legedia egokitzea eta tokian tokiko jarduera aukerekin lotuta eskaintzea edo bultzatzea, betebeharrak batzuen truke eta bermearekin.</p> <p>Lankidetzak, gazteria, etxebizitza eta ingurumena edo lurralde oreka berdea lantzen ari diren departamenduen artean. Departamendu ezberdinen artean landu daiteke proiektua eta batera egin erronka anitzei: ingurumen eta natura erronka, herri txikien erronka demografikoa eta etxebizitza krisia.</p>
<p>Nori zuzendua</p>	<p>Landa eremuan bizi nahi duten gazteei, nahiz eskusiboki landa eremutik ez bizi., Hitzarmena izan dadila aukera osagarria. Bai bermatu herri txikietan eta landa eremuan natura eta lurrari lotutako ekintzak eta zaintzak egingo direla.</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<p>GFA, Eusko Jaurlaritzak eta udalerritxikiak: etxebizitza, gazteak, ingurumen eta lurralde oreka berdea departamenduak</p>
<p>Besterik?</p>	<p>Baserritar mixto profesionala eta eskusiboki baserritik bizi den bestelako profil baten beharra dago egun. Aukerak pentsatu eta sortu behar dira, eta horietan erronka ezberdinei aurre egiteko bideak zehaztu.</p> <p>Badira estatu mailan, zonalde despoblatuetan hainbat neurri ere. Horiei begiratu eta pentsatu daiteke, eta proiektuak sor daitezke eta probatu.</p>

11. GOMENDIOAREN IZENA: EDOZEIN ETXEBIZITZA PROIEKTUETAN GAZTEENTZAT KUOTA BERMATU, gazteen bizi estilo, aukerak eta moduetara egokituta

HITZ GAKOAK: ETXEBIZITZA PROIEKTUETAN GAZTEENTZAT KUOTA BAT BERMATU

<p>Justifikazioa</p>	<p>Udalerrri denetan egiten dira etxebizitza proiektuak, publikoak, edo pribatuak izan. Beharrezkoa da horietan denetan kuota bat bermatzea gazteentzat, eta gazteek duten ahalmen, bizi estilo eta aukerei lotuta izan dadila. (Adib.: 100 etxebizitzatik 70 gazteentzat izatea; 100etik 50; 100etik 40....)</p>
<p>Deskribapena</p>	<p>Edozein etxebizitza proiektua baimentzeko eta bultzatzeko orduan, bermatu kuota bat izango dela gazteen bizi estilo, aukerak eta baldintzetara egokituta, bai promozio publikoa izan, eta baita pribatuan ere. Kuota bat jar dadila udalerrri bakoitzean eta hori berma dadila.</p> <p>Lehentasuna gazteei ematea → diru publikoarekin egiten diren inbertsioak/proiektuak gazteen etxebizitza gehiago bideratzeko; pribatuan egiten diren etxebizitzatan ere bermatu kuota bat.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kuotak (kopurua) gazteentzat jarri etxebizitza proiektu denetan
<p>Behar diren baliabideak (giza baliabideak eta materialak)</p>	<p>-Lanketa politikoa, talde eta erakunde ezberdinen artean: udalak, aldundia eta jaurlaritzak -Departamendu ezberdinen arteko lankidetzak: gazteria, hirigintza eta etxebizitza</p>
<p>Nori zuzendua</p>	<p>-Udalei, eta eskumena duten erakundeekin lankidetzak egin, hori lortzeko-bermatzeko.</p>
<p>Inplikaturako eragileak</p>	<p>Udala, Aldundia eta Jaurlaritza: erakunde ezberdinen arteko lankidetzak eta adostasuna eta sintonia behar da. Aldundiak lagundu dezake kultura hori sortzen udaletan, eta lagundu dezake ere kuota eredu bat sortzen eta arauari forma ematen.</p>